



Residencias
y estancias



Egoitzak eta
egonaldiak

CONVOCATORIA
DE AYUDAS A LA
PRODUCCIÓN

EKOIZPENERAKO
LAGUNTZA
DEIALDIA

Ekoizpenerako laguntza deialdia

1. deialdieraren itxiera: 2021ko otsailaren 11



Uharte Zentroak laguntza deialdi bat irekitzen du bertako ekoizpen laborategietan — printlaba, audiolaba, bideolaba, gorputz laborategia, grabatu laborategia eta fablab (ehungintza + 3d) — proiektu artistikoak garatzeko ekoizpena laguntzeko.



UHARTE ZENTROKO LABORATEGIETAN EKOIZPEN PROIEKTUAK GARATZEKO LAGUNTZA DEIALDIA

Laguntza honen helburua zentroko ekipamenduak erabiltzen dituzten artisten lan-baldintzak hobetzea da, materialak eskuratzea edo zerbitzu tekniko espezifikoak eskuratzea erraztuz, eskaintzen diren baliabideen ahalik eta errendimendu onena lortu ahal izateko.

Proiektuak, azken fasean egon beharko dute eta gutxienez gertuko espazio batean aurkezteko konpromisoa izan behar dute

Urtean bi deialdi irekiko dira, bakoitza 3000 eurokoa. Hautatutako proiektu bakoitzari gehienez ere 1000 euro emango zaizkio.

NORI ZUZENDUA DAGO

Nafarroarekin lotura duen edozein artista edo kolektibori zuzendua.

ZER ESKAINTZEN DA

- > Proiektu artistikoak garatzeko materialetarako gehienez 1.000 euro.
- > Uharte Zentroan lan egiteko lekua, bertako baliabide tekniko eta teknologikoak barne.
- > Proiektua garatzeko, zentroko taldearen laguntza.

DATAK

1º deialdia: Itxiera, 2021eko otsailaren 11.

Hautapenaren berri deialdia itxi eta gehienez ere hilabetera emanen da.

Proiektuaren iraupena: Memoria eta justifikazioa 2021eko ekainaren 24an aurkeztuko dira beranduenez.

2º deialdia: Itxiera: 2021eko ekainaren 24a.

Hautapenaren berri deialdia itxi eta gehienez ere hilabetera emanen da.

Proiektuaren iraupena: Memoria eta justifikazioa 2021eko azaroaren 11an aurkeztuko dira beranduenez.



FINANTZATU DAITEZKEEN GASTUAK

Printlabean egin beharreko proiektuen kasuan, aurrekontuaren % 50, gutxienez, Zentroko ekipamenduak erabiltzeko behar diren materialetara bideratu beharko da (papera, tinta, etab.).

Proiektuak audiolabean, bideolabean edo gorputz laborategian egiteko direnean, aurrekontuaren zati bat zerbitzu tekniko profesioaletara bideratu ahal izango da (soinu-teknika, bideokamera, etab.).

Bi kasuetan, gainerako aurrekontua ekoizpen-laborategien baliabideak erabiltzeagatik zuzenean sortzen ez diren baina proiektua osatzeko beharrezkoak diren kostuetan gastatu ahal izango da.

Nolanahi ere, kanpoan geratzen dira ordainsari propioak edo zerbitzu teknikoen kategorian sartzen ez direnak, ekipamendu suntsiezina, dietak eta joan-etorriak.

BALORAZIO IRIZPIDEAK

Proiektuak Uharteko Arte Garaikideko Zentroko langileek hautatuko dituzte irizpide haueta oinarrituz:

- > Proiektuaren kalitate artistikoa.
- > Proposamenaren eta gaiaren interesa Uharteko Zentroaren jarduerari dagokienez.
- > Baliabide ekonomikoaren eta egutegiaren bideragarritasuna.
- > Pertsonaren edo pertsonen esperientzia/kualifikazioa.
- > Ez da ezinbestekoa izango baina baloratzekoa izango da proiektua Uharteko Zentroko Aldi baterako egonaldietan garatzen egotea, eta hauek behar bezala aprobetxatu izana.
- > Ez da ezinbestekoa izango baina baloratzekoa izango da proiektua hurbileko gune batean erakusteko konpromisoa izatea.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Izena emateko Uharteko Zentroko webguneko formulario bete behar da:

<https://www.centrohuarte.es/eu/>

Dokumentu bakarrean eta PDF formatuan (izena_abizena.pdf, 5 mb gehienez) erantsi beharrekoak:

- > Proiektuaren laburpena.
- > Proiektua (gehienez 2 orrialde). Ekoizpen fasean egon beharko du eta ahalik eta zehatzen adierazi beharko da ekoizpena nola gauzatuko den.



- > Proiektuaren ulermena errazteko aurretiko eta/edo proposamenarekin lotutako lanen irudiak (bideoen kasuan, jarri loturak).
- > Gutxi gorabeherako kronograma edo lan-egutegia.
- > Proiektua egiteko behar diren materialen gutxi gorabeherako gastuen aurreikuspena (zergak barne).
- > Parte-hartzaileen biografia edo curriculuma.
- > Hautazkoa: Tokiko esparruek proiektua erakusteko duten interesa edo konpromisoa bermatzen duen dokumentua.

Kolektiboen kasuan (pertsonek baino gehiago haien artean forma juridikorik gabe), ordezkari bat izendatuko da Uharte Zentroarekiko harremanetarako.

***GARRANTZITSUA: Ez dira baloratuko eskatutako dokumentazio guztia aurkezten ez duten proiektuak.**

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdi honetara aurkezteak berarekin dakar oinarri hauek eta konpromiso hauek onartzea:

- > Proiektua, txostenean azaldu den moduan Uharte Zentroko ekoizpen-laboretegiak erabiliz gauzatzea. Aldaketa garrantzitsurik egin behar bada proiektuan, Zentroko arduradunei jakinaraztea ezinbestekoa da.
- > Laguntza hauek jasotzea ez da bateraezina beste erakunde batzuek proiektu bererako emandako beste laguntza batzuekin, baldin eta diruz laguntzen diren gastuak ez badira Uharteko Zentroak bere gain hartutakoak.
- > Hautatutako lanak egilearenak edo egileenak izango dira. Uharte Zentroak programa osoa edo zati bat erreproduzitu eta zabaldu ahal izango du, on line edo paperean, betiere egileak aipatuta. Uharte Zentroak deialdi honetatik sortzen diren agiri guztiak artxibatuko ditu.
- > Proiektuak argitalpenak, web orria, bideoak eta abar editatzea badakar, proiektuak Uharte Zentroaren laguntza jaso duela, esaldi honekin: "Uharte Zentroko Ekoizpen Laborategien Laguntza jaso du", eta zentroaren logoarekin. Argitalpenaren berri aldeztatik jakinarazi beharko zaie Zentroko arduradunei.
- > Amaieran, proiektuaren garapeneraren memoria argazkiak eta bideoak barne) eta egindako gastuen justifikazioa (ordainketen fakturak eta egiaztagiriak eta horien azalpen laburra) aurkeztu behar dira

***GARRANTZITSUA: Bi agiriak adierazitako egunean ez aurkezteak laguntza hau galtzea ekarriko du.**



